

Baketik Arantzazuko Bake zentroko bideoteka

Baketik-ek geurekin eta besteekin etikoki bizitzearekin zerikusia duten filmen eta dokumentalen bideoteka bat sortu du. Helburu hezigarria dauka soilik, ez komertziala. Baketik-ek doan uzten dizkie pelikulak eskatzen dituztenei: ikastetxeak, aisialdi taldeak, parrokiak, GKEak, mota guztietako elkarteak, familiak, lagun taldeak... Pelikula bakoitzak hau bezalako gida didaktiko bat darama. Edukiari buruzko azterketa eta gogoeta erraztea du xede. Gida bakoitzean pelikula ikusi duen Baketik-eko kolaboratzaile batek bi atal egin ditu: «gaia» eta «galderak pelikula ikusi aurretik eta ondoren». Hau da pertsona honek pelikula ikusteko egiten digun iradokizuna. Nahi izanez gero, zeuk ere parte har dezakezu gustatu zaizkizun zenbait pelikulen iritziak bidalita. (Informazio gehiago www.baketik.org webgunean)

Gaiak

Barkamena, dilema eta sufrimendua

Barkamena. Filmak elkarri min handia egin dieten pertsoniak aurkezten ditu, baina min horretatik haratagp eta maitasunaren doakotasunak lagunduta, elkar ulertzera eta elkarri barkatzera iristen dira.

Dilema. Filmak etikaren teoria norberaren bizitzan aplikatzea ze konplexua den islatzen du, batez ere egoera muturrekoenak inposatzen direnean.

Sufrimendua. Protagonisten jarreraren bidez, sufrimenduari aurre egiteko modu eta erritmo desberdinak islatzen ditu pelikulak.

Filma ikusteko eta entzuteko iradokizunak

Pelikula bat modu askotara ikus eta entzun daiteke. Erreferentzi puntu batzuk eskaintzen ditugu. Zehazki pelikula modu honetara ikustea eta entzutea iradokitzen dizugu:

...barrura begira. Gutako bakoitzari esanguratsu egiten zaigun horri buruz eta gure bizitzan bertan sorrarazten dizkigun galderei buruz hausnartu. Helburua ez da betirako erantzunak aurkitzea, uzten dizkigun arrastoei erreparatzea baizik.

...kanpora begira. Taldean edota familian elkarrizketa sustatu. Kontua ez da ondorioetara iristea. Hauteman eta sentitu duguna konpartitzea, eta besteen hautemate ezberdina entzuten eta ulertzen saiatzea da.

...ez bakarrik arrazoiarekin, baita bihotzarekin ere. Une batez aurreiritzi ideologikoak eta edo aurrez ditugun ideiak albo batera utzi, pelikulak kontatzen digun horren harira, sentimenduek hitz egin dezaten.

...eta denbora baten buruan, berriz ere pentsatu. Adi erreparatu egun batzuen ostean pelikulak utzitako arrastoari. Arrasto hori ikusi dugunari buruzko hausnarketak eta istorioak gugan hartu duen biziak sortutako inpresioa da.

Zenbait galdera...

...pelikula ikusi aurretik

- Indarkeriari buruz: Nola adierazten da indarkeria? Justifika daitekeen ekintza biolentorik ba al da? Zein? Indarkeriak indarkeria gehiago sortzen al du? Nola?
- Sufrimenduari buruz: Sufrimenduaren aurrean modu berean erantzuten al dugu? Nola erantzuten dugu?
- Ereduari buruz: Pertsona eredugarriak al gara? Jokatzeko dugunean kontuan hartzen al dugu beste zenbaitentzat erreferentziak garelako? Etsenpluaren bidez predikatzen al dugu?

...pelikula ikusi ondoren

- Nola lantzen da eskola-jazarpen kasua ikastetxean? Zerbaite konpontzen dela uste al duzu? Zergatik?
- Nolakoa da Christianen eta Eliasen arteko harremana? Zerbaitean bereizten al dira biak? Zertan? Zertarako erabiltzen dute indarkeria? Zer da bilatzen dutena?
- «...Barkatu nahi dizut baina ezin dut, gauzak horrela dira...». Zer esan nahi dute Eliasen amaren hitz horiek?
- Anton zergatik saiatzen da Big Man sendatzen? Zergatik uzten du hiltzen azkenean? Zer gertatzen zaio Antoni? Zein da bere zalantza?

Itxasne Etxeberriaren laguntzarekin.

Cine para **vivir y convivir**

En un mundo mejor



En un mundo mejor

Fitxa teknikoa

JATORRIZKO IZENBURUA: Haevnen-In a better world.

URTEA: 2010.

IRAUPENA: 110 min.

HERRIALDEA: Danimarka.

ZUZENDARIA: Susanne Bier.

AKTORE-ZERRENDA: Mikael Persbrandt, Trine Dyrholm, Ulrich Thomsen, William Jøhnk Nielsen,

Markus Rygaard, Bodil Jørgensen, Toke Lars Bjarke, Camilla Gottlieb, Satu Helena Mikkelinen.

EKOIZPEN-ETXEA: Danish Filminstitute / Danmarks Radio (DR) / Film Fyn / Film i Väst / MEDIA / Memphis Film / Nordisk Film- & TV-Fond / Sveriges Television (SVT) / Swedish Film Institute / Trollhättan Film AB / Zentropa International.

Sinopsia

Anton eta bere familiaren bizitza Afrikako errefuxiatu-eremu batean eta Danimarkako hiri baten egunerokotasun grixaska batean igaroko da. Hau dela-eta, bi familien bizitza gurutzatu eta adiskidetasun apartekoa zein arriskutsua sortuko da haien artean. Hala ere, bakardadeak, hauskortasunak eta tristurak pazientziarekin itxarongo dute beren bizitzetan parte hartzeko. Laister, adiskidetasuna aliantza arriskutsua eta bizitzak arriskuan jarriko dituen jarraipen bilakatuko da.

baketik
arantzazu
Bake zentroa. Gatazken lantze-etikoa
Centro por la paz
Elaboración ética
de conflictos

943-251005

www.baketik.org

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA DEPARTAMENTO DE CULTURA
Gatazken eta Gatazken Erantzarako Zuzendaritza Dirección de Juventud y Acción Comunitaria